

## **AZKOITIA / Izarraitz aldean bildutako ipuinak kontatuko ditu Gurutz Garmendiak bihar liburutegian**

Gurutz Garmendia Osinalde, 35 urteko azkoitiarrak; Izarraitz aldean jaso eta bildutako ipuinak kontatuko ditu bihar goizeko 11:00etan liburutegian.

"Gaur egun ume eta helduentzako ipuin erara kontatuko ditugun kontakizun eta pasadizo hauek garai bateko sinismen zaharrak dira. Telebista edo Internet ez zegoenean, jakinduriaren iturri eta transmititzaile ziren nahiz eta orain mitologia eta ipuin bihurtu" dio ipuin kontalari azkoitiarrak.

Ipuin, kondaira, kontakizun eta pasadizo hauek oso zahar eta aspaldikoak dira eta "Basoko Damaren ipuin sorta" deitzen den liburuxkan jasoak izan dira eta era parte hartzailean kontatu nahi ditu larunbat goizean. "Jakinduri iturri zaharrak ahozko tradizioarekin doaz lotuta eta gure umeei ezagutaraztea interesantea da. Iturri horietan, nahiz eta pertsonaiak toki guztietan berdinak izan, Mari, Herensugea, Jentilak, lamiak.tokiaren arabera aldatu egiten dira kondairak".

Adibide bezala, Azkoitian 'Amuteko Damie' ezagutzen zena aipatzen du Gurutzek, "Izatez, Mari pertsonaia da baino hemen horrela ezagutzen zen eta Izarraitz parean bere bikotearekin biltzen zenean, hau da Maiu-rekin (Herensugea), kazkabarra eta ekaitza sortzen ziren inguruan.

### **Euskara, natura eta ingurua**

Nahiz eta txikienentzako prestatu biharko ipuin kontaketa, helduentzako aproposa ere ba omen da eta hiru ordu laurden iraungo duen saioan, euskara, natura eta ingurua lotuko dira.

Alegia, aurre-istorioan garatutako; ahoz aho eta mendez mende baserrietako sutondoetan gordetako ipuin eta kontakizunik xeble, kuttun eta betikoak entzun ahal izango dira bihar liburutegian